

TOPONIMIA

Luziano (Gabriel) Jauregi Uribarren, Aramaioko seme ospetsuaren jaiotzeko mendeurrena atxakitzat hartuz liburu hau gertatzeko asmoa hartu genuenean, berak txikitan izan zuen inguruaren berri zehatzak biltzeko erabakia ere hartu genuen.

Gaur aparteko garrantzia ematen diote psikologoek umetan eginiko urteei. Bizitza osorako markatzen omen dute gizon-emakumeen norabidea. Aurrerantzean, txikitan jasotako eragina osotu, zuzendu nahiz aberastu egiten ei da, baina, sakonean ez ei da inoiz aldatzen.

Hortik sortzen da, norbaiten bizitzako gorabeherak aztertu eta bizitzan izan dituen bideei begiratzerakoan, txikitan izan duen ingurugiroari aparteko bigirunez begiratu beharra. Iturburu horretan aurkituko ditugu, seguruenik, gerora izandako hainbat joeren azalpenak.

Luciano (Aita Gabriel) Jauregi Uribarren idazlearen bizitzako gorabeherak eta lana aztertzerakoan, bada, berak txikitan bizi izan zuen ingurua aztertzeraz bultzatzen gaitu. Aramaioko herrira begira jartzen gaitu. Bertako historiako bide luzeari begirada eman eta mendez mende, nork daki noiztik, bizi-bizirik gaur arte iraun duen euskara aztertzerakoan, leku bat egin nahi izan diogu, bertako toponimiari (herri eta lurren izenei), horrek txikitan inguruan izan zuen naturgiroaren berri emango digulako.

Hori dela eta, nik Aramaioko herrialde osoko (haran edo gainbarruko eta muga horietatik kanpoko) toponimoak bildu eta aztertzerakoan, bai hizkuntzaren arlo zabala bai egoera historiko-geografikoa bateratzen dituzten datuak eskaini nahi dizkizuet zehazkiro, egin-eginean ere, eskualde bateko izenetan, hizkuntzaren historiarako berri ugari jasoten direlako.

Adibideetan hainbat toponimo agertzen bazaizkigu ere, beren-beregi auzo eta base-rirenak xorta berezi batetan bilduko ditut, horiek izango zirelako, dudarik gabe, Aita Gabrielelek txikitan gehien ezagutuko zituenak.